

IGELDOKO ORRI INFORMATIBOA



**Jubilatuak
motorrak
berotzen**

Kaixo herrikide!!!

Koronabirusaren eraginpean hasi dugu ikasturte berria, baina momentuz, martxa onean doa dena: Eskola, Guraso elkarte, ikastaroak, pelota, jubilatuen ekintzak, Kooperatiba... aurrera doaz eta ale honetan bildu dugu horien berri. Bestalde, garai honetan ospatu ohi den Udazken Festarik ez da izango, ezta Zaharren Egunik ere. Bizi dugun egoeran, antolatzaileek ez dute komenigarri ikusten. Dena dela,

ezin herriko zaharrekin ahaztu eta detailtxoren bat jasoko dutela jakin dugu. Zer ote?

Horretaz gain, ikasturte berriarekin Herri Kontseiluak ere hausnarketarako tartea hartu du eta Herri Batzarra egiteko asmoa du abenduan, eskuartean dituen gaien inguruan hitz egiteko. Batez ere, Toki Entitate Txikiaren gaia lantzeko. Hori guztia aurkituko duzu datozen orrietan.



Giro ederra jarri zuten plazan Turistreatzen antzezlanarekin.

Herritarrek asko gozatu zuten Turistreatzen antzezlanarekin

Irailaren 5ean, Trapu Zaharra konpainiaren Turistreatzen antzezlanak ikusteko aukera izan zen Igeldon. Bizi dugun egoerak eraginda, ez zen bestetan bezainbeste jende bildu plazan, baina gerturatutakoek gogotik

gozatzeko aukera izan zuten.

Turismoa beste modu batera bizitzeko aukera eskaini zuten antzezleek, umorea oinarri izanik. Kultur ekintza asko geldirik dauden garai honetan, herritarrek asko eskertu zuten emanaldia.

Mahai jolasak erabiltzeko aukera eskainiko du Kixmik

Aisialdia eten ez dadin, Kixmik jakinarazi du dituen mahai jolasak erabiltzeko aukera emango diela herritarrei. Interesa daukanak kultur etxera jo behar du egun jakinetan. Honela antolatu dute: «hartu beharreko neurriak ziurtatzeko, mahai jolasa jasotzeko eguna osteguna izango da eta itzulketa eguna astelehena. Era berean, erabilera egokia ziurtatzeko, fiantsa bat utzi beharko da, behin jolasa egoki uztean, fiantsaren itzulketa egingo da».

Bestalde, haurren aisialdiari dagokienez baten batek proposamenik izanez gero, Kixmirekin harremanetan jartzeko adierazi dute: kixmiigeldo@gmail.com

Horrez gain, bizitzen ari garen egoera ikusita, 2019-2020ko irteera bertan behera geratu dela jakinarazi du Kixmik.

Din-din itxita, momentuz

Din-din elkarteko juntakideek jakinarazi dute Eusko Jaurlaritzaren aginduz, Din-din elkarte itxita egongo dela abisu berri bat arte, Covid-19ak eragindako egoera dela eta.

Errigoraren kanpaina berria ate joka

Ate joka dugu Errigoraren kanpaina berria. Urriaren 24tik azaroaren 12ra eskatu ahal izango dira saskiak. Eskaera orriak IKOn eta Txapelan daude.

Jubilatuak hasi dira ekintzak antolatzen

Jubilatu elkarteak martxa hartzen hasi zenean, Covid-19aren pandemia iritsi zen. Hilabete batzuetan geldirik egon behar izan dute, baina ekintzak antolatzen hasiak direla jakinarazi dute; hasi direla motorrak berotzen. Momentuz

pilates saioekin ari dira. Astearte eta ostiral goizetan aritzen dira Itsas Aurre kultur etxean. Pilates arrunta eta pilates aulkian egiten dituzte. Horrez gain, beste bi ikastaro ere martxan jartzekotan dira laster: memoria lantzeko ikastaroa

eta telefono mugikorraren erabilerraren ingurukoa. Horiek izango dira urte bukaerara arteko ekintzak. Interesa daukanak lehenbailehen deitu behar du honako telefonoetara: 620 100 162 (Lurdes) edo 666 451 325 (Antton).

Euskaraldian izena emateko bi puntu: IKO eta kultur etxea

Aurten, Euskaraldiko bigarren edizioa izango da eta dagoeneko izena emateko aukera dago. Igeldon, bi puntutan eman daitezke izena: Itsas Aurre kultur etxean eta IKOn. Dena dela, antolatzaileek online emateko gomendatu dute eta honako helbidean egin daitezke izen ematea: euskaraldia.eus.

Euskaraldia azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango da, hau da, 15 egunetako ariketa soziala izango da. Ariketa honen helburua da, egun horietan zehar hizkuntza ohiturak aldatzea eta eus-

kararen erabilera indartzea. Horretarako, partehartzaileek bi rol izango dituzte aukeran: Aho-bizi edo Belarriprest izango dira.

Euskararen Egunaren bueltan, ekintzak

Abenduaren 3a Euskararen Eguna da eta urtero bezala, ekintzak antolatuko dira egunaren bueltan. Aurten, azaroaren 27, 28 eta 29an izango dira. Umeentzako pelikulak, gaztetxoentzako sexologia tailerra, bizikleta irteera eta zirkuituak, zunba eta kabareta izango dira.

Argazki zaharren bila

Jabier Iraolak urteak daramatza Igeldoko argazki zaharrak pilatzen. Herritar askorekin jarri da dagoeneko harremanetan, baina oraindik argazki gehiago egon daitezkeela eta, herritarrei dei egiten die berarekin harremanetan jartzeko: 627 756 185 (Whatsappez ere bai).

Herri Kontseiluari ere ekimen interesgarria iruditzen zaio eta elkarlanean hasiak dira, beste hainbat herritarrekin batera (aurrerago aztertuko dute ze forma eman edo ze proiektu garatu).

Bestalde, Jubilatuek ere memoria historikoaren inguruan lanketa egiteko asmoa dute eta denen arteko elkarlana aberasgarria izango dela argi dute denek.



Urriaren 3an plazan elkartu ziren hainbat herritar Sarek egindako deialdiarekin bat eginez.

Preso eta Iheslarien egoerari irtenbidea emateko eskatu dute igeldotarrek ere

Badira hilabeteak jada Sarek euskal preso eta iheslarien egoerari irtenbidea emateko dinamika berri bat jarri zuela martxan: Izan Bidea. Dinamika hau erronka batean oinarritzen da, 3.127.326 km egitea. Euskal Herriak duen biztanle-kopurua. Hiru milioi kilometro egiten hasi den hiru milioi biztanleko herri bat.

Dinamikaren baitan, Urriak 3an Euskal Herriko 650 tontor igotzeko deialdia egin zen. Igeldon ere testigua hartu eta kostako bidetik Kukuarrira igotzea zen asmoa.

Euskal Herri guztian asmoak birplanteatu egin behar izan ziren ordea. Eguraldi oso txarra aurrekusten zenez, mendiko igoerak bertan behera utzi eta Sarek plazetan elkartzeko deialdia luzatu zuen. Eguraldi txarrari aurre eginez hainbat herritar elkartu ziren herriko plazan. Sarek tontorrek igotzeko ekimena Maiatzaren 8ra atzeratu du eta printzipioz egun horretan Kukuarrira igotzeko deialdia mantenduko da.

Bestetik, Izan Bidea dinamikaren

baitan Urriak 24ean Donostian mosaiko sinbolikoa burutu zen 600 lagunekin. Berez, manifestazio eta mosaiko jendetsua egiteko asmoa zegoen, baina Covid-19aren zabal-kundearen aurrean, neurri berriak kontuan hartu eta egoerara egokitzea erabaki zuen Sarek. Bestalde, Dinamikari jarraiki, Igeldotik deia luzatu dute: «Taldean, lagunartean, familian edota bakarka kilometroak egitera eta hauek mugikorreko Izan Bidea aplikazioan zenbatzera animatu nahi zaituztegu!».

Plangintza berria prestatzen ari da Herri Kontseilua

Abenduari begira, Herri Batzar bat egiteko asmoa du Herri Kontseiluak. Egoerak baldintzatuta, ze modutan egin aztertu egin behar dute.

Azken hilabeteetan, herritarrengandik zertxobait urundu dela iruditzen zaio Herri Kontseiluari. Pandemiak bere lana baldintzatu du, baita taldearen dinamika hautsi ere, eta herritarrengana iristeko bideak oztopatu ditu. Horren aurrean, hausnarketa sakon bat egin dute Herri Kontseiluko kideek eta egoera kontuan hartuta, plangintza berria prestatuko dute. Herri Kontseiluaren orain arteko funtzioa eta gaur egungoa desberdina dela argi dute. Festak eta antzeko ospakizun ekintzak ezin dira egin edota ez dira komeni. Egoerak eragindako gizarte beharrek, berriz, garrantzia hartu dute.

Beraz, zentzu horretan egin nahi du lan Herri Kontseiluak. «Zaintza kolektiboaren garaia da. Elkar babestu, zaindu eta laguntzeko garaia, elkartasun printzipioa lehenetsiz», azpimarratu dute.

Herritarren beharrak eta kezkek zeintzuk diren jakin nahi dute eta Herri Batzar bat egiteko asmoa dute abendura begira. Ze formatutan edo ze modutan egin, momentua iristean zehaztuko dute.

Gai potoloak: TET, Kooperatiba...

Herri Kontseiluak baditu eskuarteran gai garrantzitsu batzuk eta horiei erantzutea ere bada erronka. Nabarmentzekoak dira bi:

Igeldo Toki Entitate Txikia edo Auzo Udala bihurtzearena eta Kooperatibako proiektuarena.

Bestalde, Eskola Zaharreko proiektua aurrera eramateko garairik onena ez dela badakien arren, herriko eragileekin eta herritarrekin elkarlanean egindako proiektua idatzita utziko du, herritarrei aurkeztuko die eta momentua iristean, Udalari aurkeztuko dio.

Horrez gain, ohi bezala, herriko eragileei eta herritarrei laguntza emateko dagoela gogorarazi nahi du eta behar denerako, harremanetan jartzeko kultur etxeko bulegora joz, idatziz edo deituz: herrikontseilua@igeldo.eus / 606311734.

Igeldoko gida komertziala, denen eskura


Irailarekin batera, Igeldoko gida komertziala argitaratu zuen Herri Kontseiluak. Etxe guztietara banatu zen, herritar guztien eskura jarri. Bertan, Igeldoko eta igeldotarren negozio eta komertzio ugari azaltzen dira. 96 denera, arlo ezberdinetan banatuta: gremioak; dendak; taberna, sagardotegi, jatetxe eta ostatuak; nekazaritzari lotutakoak; elikadura... Norbaitek eskuratu nahiko balu, kultur etxeko bulegoan daude.

Bertako ekonomia bultzatzeko helburua

Bertako eta bertakoen ekonomia bultzatzeko asmoarekin osatu du Herri Kontseiluak gida komertzial hau eta halaxe adierazi du "Has gai-

tezen bertatik" mezuarekin: «Aurreko Herri Kontseiluak proposatutako ekimen hau aurrera eramateko momentu egokia iruditu zaigu. Gizarte gisa aspaldiko garairik eze-gonkorrenak bizi ditugu. Covid-19aren ondorioz sortu den eta sortu den egoera larria ikusita, bertako eta bertakoen ekonomiari bultzada ematea inoiz baino garrantzitsua da dela iruditzen zaigu. Norabide honetan, egoera honek aukerak ere eskaintzen dituela uste dugu. Lehia eta berekoikeriaren aurrean elkar laguntza eta tokikotasuna gisako balioak erdigunean jartzeko hautua egin beharko genuke. Gida honen bitartez, gure aletxoak jarri nahi izan dugu. Herritarren bizi baldintzak

hobetzeko helburuz, batzuek eskaintzen dituzten zerbitzuak guztiontzat eskuragarri jarri ditugu. Erabilgarri izango delakoan, On egin!».



«Batzorde mistoa osatzera goaz, prozesua aurrera eramateko»

Igeldon Auzo Udala sortzeko prozesua aurrera doa eta emandako pausoen berri azalduz, oharra banatu dute etxez etxe.

Igeldon Toki Entitate Txikia (Auzo Udala) sortzeko lanean ari den Batzordeak jakinarazi du, Udal ordezkariekin batera, batzorde mistoa osatzeko pausoak ematen ari direla. Ohar bat banatu dute etxez etxe. Horrela adierazi dute: «Urriaren 7an elkartu zen Herri Kontseilua Udal ordezkari eta tek-

nikariekin, eta Siadecorekin. Bilera horretan, Udalak adierazi zuen Siadecoren zerbitzuak kontratatu dituela prozesua bideratzeko, eta Siadecok egindako planteamendua aurkeztu zuen. Bi aldeok begi onez ikusten dugu planteamendua eta orain, lehenengo fasean sartu gara. Hau da, prozesua aurrera

eramango duen Batzorde sustatzailea edo Batzorde mistoa definitu behar dugu».

Oharrean gaineratu dutenez, beste bi fase gehiago izango ditu prozesuak eta hurrengo fasea litzateke batzorde mistoa osatu eta lanean hastea: negoziaketa.

Herri Kontseiluko hainbat eskaera aintzat hartu ditu Udalak

Borda Berri eta Kamio artean baranda jarri dute. Dena dela, erdiko barra jartzeko eskaera egin diote eta jartzekotan dira.

Herri Kontseiluko eskaera batzuei erantzunez, hainbat konponketa eta hobekuntza egiten ari da Udala Igeldon. Besteak beste: Pilotegi bidea asfaltatu; Agiti, Marabieta eta Arritxulo bideko zati batzuk konpondu; Borda Berri eta Kamio artean baranda jarri; gaikako hondakin bilketarako edukiontzi gehiago jarri... Herri Kontseilua orokorrean pozik dago berak egindako lanak fruituak eman dituelako, baina azken obrekin lotuta, zenbait hobekuntza egin beharra ere ikusten du eta horiek proposatu dizkio Udalari.

Alde batetik, Pilotegi bidean arriskuak geratu diren puntu batzuk hobetzeko eskatu du eta dauden zabalgunek txukundu eta egokitzeke. Egindako obrari ahalik eta etekin gehien ateratzea da helburua eta



Jarri duten baranda ez da oso egokia eta erdian barra jartzeko eskatu da.

bidea ehuneko ehunean aprobeztatzea.

Bestetik, Borda Berri eta Kamio artean jarritako baranda ez dela guztiz egokia iruditzen zaio. Tarte handiegia dago azpiko aldean eta

beste barra bat jartzeko eskaera egin da. Mantentik erantzun dutenez, kontuan izango dute eskaera, baina orain beste lehentasun batzuk dauzkate eta abendu-urtarrila aldera helduko diote zeregin horri.

Zaharren Eguna ezean, oparia etxera!

Aurten, ez da Udazken Festarik ez Zaharren Egunik ospatuko herrian. Dena dela, herriko zaharrek, detailetxo bat jasoko dute omenaldi moduan.

Aurtengo urtea berezia dela badakigu guztiok eta herrian ospatzen diren jai ezberdinetan eragin zuzena izan duela nabaria da. Udazken giroan murgildurik, urria bukaeran udazken jaia ospatzen da herrian eta azken urteetan, 2005 urtetik hona, jai honen barnean egin ohi zaie herriko zaharrenei omenaldia. Orain dela 44 urte (1976 urtean) hasi ziren herriko gazteak zaharrei omenaldia egiten eta ordutik urtero izan dute herriko zaharrenek euren egun berezia.

Aurtengoan aldiz, antolatzaileek adierazi digutenaren arabera, «ezinezkoa izan da herrian elkartzea. Gainera pandemia honetako talderik zaugarriena zaharrak izanik, ez zuen zentzurik elkartzeko deialdirik egiteak».

Oparia eta detailea, etxera

Hala ere, garai zail hauetan, ezin garela herriko zaharrez ahaztu nabarmendu dute eta omenaldi xume bat egin asmoz, urtero beza-

la, aurten 85 urte betetzen dituztenei oparia etxera emango zaie. Hauek dira aurten 85 urte bete dituzten herritarrak: Mirari Oriden, Jose Mari Iruretagoyena, Jose Antonio Albisu, Juana Valverde, Nemesio Artola, Maria Aristigieta eta Celestino Urruzmendi.

Horretaz gain, 65 urtetik gorako guztiei ere bertso bat iritsiko zaie etxera egun bereziaren oroigarri moduan. Bazkaria eta bazkal osteko opariak berriz, hurrengo urterako utzi beharko dira!

*Urte erdi da bihurtu dela
musukoa gure parte
eta mantendu behar omen dugu
elkarrengandik aparte.
Bazkaririkan ez da egongo
agindu berri bat arte,
baina halare, gonbidapenek
zuen izena daukate
lehen ekintzaile ta orain, berriz,
oinarri bat baitzerate.*

*Nahiko lan dio gaixotasunak
gizarteari emana
ta osasuna ziurtatzea
da gaur dagokigun lana.
Nahiz bertan behera utzi behar den
Udazken Festaren plana,
iritsiko da eguna berriz
batzeko elkarrengana.
Bitarte hortan, jaso muxu ta
besarkada bero bana.*

Bertsoak: Imanol Lizarazu Habana



LEKU EDER-KO BERTSO SAIOAK (1946-1958 urte artean)

1924-25 urteetan Leku Eder taberna eraiki zuten Balentin Zamora Iburgurenak (1894 Buena Vista) eta Frantziska Arrillaga Sagardiak (1906 Jose Enea).

Ostalaritzan lan egiteko joera Buena-Vistatik zetorkien. Izan ere, Balentin Buena Vista tabernako semea baitzen eta bere 4 senideetatik bertan jaiotako bietatik azkena.

Buena Vista etxea 1892 urtean Balentinen gurasoek eraiki zuten. Bere ama Joakina Iburguren Landa, handik 50 metrora dagoen Ttosa Berri (edo Ttosa Etxeberriko) alaba zen, eta bere senar Balentin Zamora Arratibelekin (Errenteri aldetik etorria) ezkondu eta berehala, 1892. urtean gaur egungo Buena Vista eraiki zuten.

Balentin eta bi arrebak (anai zaharrena etxean geratu zen) gazterik Kubara joan ziren. Handik urte gutxira hirurak itzuli ondoren, Balentin bere jaiotetxean, Buena Vistan lanean ari zen Iturrietako Jose Enea-ko Frantziska Arrillaga Sagardiarekin ezkondu zen. Lehenik Igeldoko plazan bizitzen jarri ziren, eta handik gutxira (1924-25) Leku Eder etxea eraikitze-ari ekin zioten.

Hasierako urteak oso gogorrak izan ziren, eta zer esanik ez gerra lehertu zenean. Adibidez eta besteak beste, esku ezkerrarekin norbait agurtzeagatik, Sorgin Piku deitutako kaxkoan Balentin fusilatze-ko-

tan egon omen ziren.

Gerra ondorengo urteak gogorrak izanik, eta inguruetako jendea erakartzeko, Frantziska eta Balentinek bertso saioak antolatzea pentsatu zuten. Baimenak ezin izan zituzten beti lortu, baina eza-gutzen zuten zenbait jenderen laguntza medio (izan ere Balentinek goizetan Donostiako Udaleko Arrandegian "arbitrio" bezala lan egiten zuenez jende asko ezagutzen zuen), lortu zuten tabernan zenbait bertso saio eta aizkora apusturen bat ere antolatzea.

Gehienetan aritzen ziren bertsolariak Uztapide eta Zepai izaten ziren, baina baita beste batzuk ere. Bertsolariak balkoietatik aritzen omen ziren eta jende guztia kanpoaldean belarriak erne asko egoten omen zen!

Harrigarri gerta dakiguke baina ia autorik ibiltzen ez zenez, tabernako atariaz gain, errepidea eta artean munto bat besterik ez zen gaur egungo Leku Ederko aparkalekua jendez lepo egoten omen zen.

Aritzen ziren aizkolarien berri ez badakigu ere, aizkora apustuak ere munto horretan egin omen ziren.

Adierazgarria da garai horretako tabernetan izaten zen giroa. Izan ere garai hartan tabernan norbaiten norbaiten erronka botatzea ohikoa izaten baitzen eta baita tabernan bertan bertsozaleak bertso-tan aritzea, eta tabernako sukaldean sartu eta etxe-ko andreari bertsoen bat kantatzea.

99 ikasle eta bi ikastaro berri, aurtengo ikasturtean

Ohiko ikastaroez gain, marrazketa eta balleta jarri dira ikasturte honetan martxan. Denera, 13 ikastaro antolatu dira.

Ikastaroak antolatzeaz arduratzen den taldeak argi du Covid-19ak baldintzatutako ikasturtea izango dela aurtengoa, baina momentuz, ikastaroez izandako bilakaerarekin oso pozik daude taldekideak. «13 ikastaro antolatzea lortu da, horietatik bi berriak dira, 99 herritar animatu dira eta orain arte "normaltasunez" doa dena», adierazi dute.

Kultur etxean antolatu behar izan dira ikastaro guztiak (zunba izan ezik) eta espazio aldetik izan dituzte zailtasun gehien ikastaroak antolatzeko orduan, baina «puztutako egitea» ere lortu dute, eta gustora dira.

Neurriak, protokoloa...

Ikastaroak aurrera eramateko, protokolo eta neurriak ere ezarri dituz-

te: musukoa erabiltzea, eskuak gelarekin garbitzea, distantziak mantentzea, desinfekzio lanak, aireztatpena, ikasleek kanpoan itxarrotea, talde txikiak osatzea...

Marrazketa eta balleta

Iaz bezala, 13 ikastaro antolatu dira, baina aldaketak egon dira. Mekanografia eta hipopresiborik ez da izango oraingoan, baina beste bi ikastaro berri bai: marrazketa eta balleta. Marrazketak, batez ere, arrakasta handia izan du eta hiru talde osatu dira: umeenak bi eta helduena. Ikastaro hauetan, hiru herritar ari dira irakasle lanetan. Txus Galindok marrazketa ematen du eta Maddi Agirrek eta Iraia Altunak balleta.

Ohi bezala, arrakasta handia izaten jarraitzen dute euskal dant-

zak, pianoak eta ingelesak, baina gitarra izan da aurtengo protagonistetako bat. Zazpi ume gehiago apuntatu dira aurtengoan, eta talde berria osatu da. Trikitixak ere indarra hartu du.

Talde txikiak, leku gutxi

Aurreko urteetan bezala, zenbait ikastarotan izena emateko aukera dago, nahiz eta ikasturtea martxan egon. Lekua dagoen ikusi beharko litzateke eta irakasleekin kontsultatu. Antolatzaileek adierazi dute protokoloa dela eta, talde txikiagoak osatu behar izan dituztela eta ikastaro gehienetan ez dagoela lekurik. Dena dela, interesa izanez gero, harremanetan jartzeko dei egin dute: ieltxokulturelkarrea@ymail.com edo 943313030 / 606 311 734.

2020-2021 IKASTAROAK

IKASTAROA	EGUNA	ORDUA	LEKUA
Ingelesa	Astelehen/Astearte/Asteazken	Mailaren arabera	Kultur etxea
Marrazketa	Astelehena	17:40-18:40 (handiak); 18:50-19:50 (txikiak); 20:00-21:00 (helduak)	Kultur etxea
Zumba	Astelehen eta asteazken	20:00-21:00	Frontoia
Gitarra	Astearte	16:30-17:30 (ertainak); 17:40-18:10 (txikiak); 19:00-20:00 (handiak)	Kultur etxea
Joskintza	Astearte	16:30-18:00 (iazkoak); 18:00-19:00 (hasiberriak)	Kultur etxea
Pianoa	Astearte/Ostegun	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Trikitixa	Astearte	Bakarka zehaztua	Kultur etxea
Yoga	Astearte	18:30-20:00 eta 20:00-21:30	Kultur etxea
	Osteguna	20:00-21:00	
Musika tailerra	Osteguna	17:30-18:30	Kultur etxea
Panderoa	Osteguna	18:40-19:40	Kultur etxea
Frantsesa	Osteguna	18:30-20:00	Kultur etxea
Balleta	Ostirala	16:30-17:30	Kultur etxea
Euskal dantza	Ostirala	17:45-18:45 (handiak)	Kultur etxea
	Larunbata	10:00-11:00 (hasi berriak); 11:00-12:00 (txikiak); 12:00-13:00 (ertainak)	

23 ume dabilta pelotan, iaz baino dexente gehiago

Astearte eta ostegunetan izaten dira saioak 17:30etatik 19:00etara.

Pelota elkarteak ere hasi du ikasturte arraro hau eta azken urteetan baino ume gehiago dabiltzala azaldu dio Orri Informatiboari Onditz Urruzmendi irakasleak. Iaz 15 inguru izan ziren eta aurten 23 ume dabilta. «Txiki asko apuntatu dira; lehenengo mailakoak, alegia. Ondoren, 7 benjamin, 9 alebin eta 2 infantil daude. Iaz ez bezala, DBH egitera jaitsi diren bik ere jarraitu egin dute», dio. Urruzmendi eta Iñaki Enbil dira irakasleak.

Oso pozik

Pelotak izan duen erantzunarekin oso pozik daude pelota elkarteko kideak. Ume asko animatzeaz gain, adin desberdinetakoak daudela azpimarratu dute, eta neska zein mutil gerturazten direla.

Ostegunetan, bi txanda

Astearte eta ostegunetan izaten dira pelota saioak 17:30etatik 19:00etara. Lehenengo mailatik gorako ume guztientzako irekia da eta pelotan jokatu nahi duen edonork hartu dezake parte. Ez dago



aurrez apuntatu beharrik.

Dena dela, aurten hainbeste ume dabiltzanez, leku falta dute eta ostegunetan, bi txandatan banatuko dituzte saioak. Lehenengo ordu erdian txikiak ariko dira eta 18:00etatik 19:00etara, handiak.

Palaz aritzeko asmoa ere bai

Batez ere eskuz aritzen badira ere, urtero, palaz aritzeko tartea ere

hartzen dute eta aurten ere horretarako asmoa badute. Seguruena, ostegunetarako utziko dutela azaldu du Urruzmendik.

Momentuz, txapelketarik ez

Aurreko urteetan, txapelketa desberdinetan hartu izan dute parte herriko umeek, baina aurten, momentuz, ezin da txapelketarik jokatu Covid-19aren ondorioz.

Guraso Elkarteak:

Hasiera berezia izan arren, martxa onean

Guraso Elkarteak azaldu duenez, aurtengo ikasturte hasiera berezia izaten ari da Covidarengatik, «baina martxa onean doa dena». Zaintza zerbitzuarekin tira-birak izan ziren hasieran, Eskolan eskaintzeko aukera ez zegoela eta, baina horrekin ere aurrera jarraitzea lortu dela nabarmendu dute, «Herri Kontseiluari esker Itsas Aurren elkartzen bai-

tira goizetan ikasleak». Hala ere, aurrerago, zerbitzu hau urtero moduan eskolan eskaini ahal izango dela espero dute. Horretan dabilta.

Bestalde, bizi dugun egoera dela eta, ikasturte honetako jaialdien antolamendua bertan behera geratzen ari dela azaldu dute eta Gau Beltza ospatzeko ere ez dela ekintza berezirik antolatu.

Igeldoko Eskola, egoera berrira moldatzen

Eskolan, kurtso hasiera nola bizitzen ari diren galdetu dugu eta hementxe duzue bidali duten balorazioa.

Eskolatik, kurtso haieraren inguruko balorazioa bidali diote Orri Informatiboari: «*Igeldoko Herri Eskola martxan da. Ikasleak irailaren 7an hasi ziren eskolan, eta denentzat izan zen berezia hainbeste hilabete eta gero berriz elkarrekin egotea. Baita arraroa ere.*

Izan ere, Covid-19a dela eta, egoera ez da betikoa. Sartzera-koan denok eskuak garbitu behar ditugu, temperatura hartu behar dugu, sei urtetik aurrerako ikasle-ek musukoa jantzita egon behar dute, jolasgaraietan eremu banatuetan egon behar da, aldaketaren bat dagoen bakoitzean eskuak garbitu behar dira... Errutina berri asko gehitu zaizkigu eskolan eta batzuetan ez da erraza dena gogoratzea, baina oraingoz guztiok gaude hemen eta berdin jarraitu nahi dugu.

Gainera, alde positiboa bilatu nahi izan diogu egoera honi, eta eskolak eskaintzen dizkigun aire libreko espazio desberdinei zukua ateratzen saiatzen ari gara. Atzealdeko terrazan adibidez, ikasle bakoitza bere esterilla zatian eserita eta beharrezkoa den distantzia mantenduz, Lehen Hezkuntzako taldeek maskararik gabe egoteko aukera dute. Haur Hezkuntzakoak gainera baratzarekin eta landareekin ari dira lanean, eta gustura aritzen dira aitzurra hartu eta lurrari buelta ematen.

66 ikasle

Aurtengo ikasturtean guztira 66 ikasle ditugu eskolan: 2 eta 3 urteko taldean 13, 4 eta 5 urteko-



Distantziak mantenduz, Lehen Hezkuntzako taldeek maskararik gabe egoteko aukera dute terrazan.

an beste 13, 1. eta 2. mailakoan 12, eta 14na 2. eta 3. zikloko ikasgeletan. Oraintxe bertan 10 irakasle ari gara lanean eskolan, eta beste bat etortzekotan da, egoera dela eta plantilla indartzerara. Bere laguntza ongiatorria izango da.

"Gure mundua ezagutzen"

Lehen ebaluaziorako, azken urteetan bezala, zientziarekin lotutako proiektu desberdinak egingo ditugu. Proiektuarentzat aukeratu dugun izenburu orokorra "Gure

mundua ezagutzen" da, eta hari horretatik tiraka gauza ugari ari gara lantzen, lurra, unibertsoa edo animalia desberdinak esaterako. Gainera, Informazio eta Komunikazio Tresnen (IKTen) erabilera arduratsuan trebatzen hasiko gara berehala ikasle zaharrenak, eta sorpresa txikiak ere izango ditugu honi lotuta.

Ilusioz betetako ikasturte bat dugu aurretik, berezia eta desberdina zentzu askotan, baina ziur denon artean aurrera ateratzeko indarra batuko dugula».

IKO dendaz aparte, herriko txoko berri bat bihurtu da

Uztailetik ona egindako ibilbidearen inguruan, balorazio positiboa egin dute.

Uztailean ireki zuen atea Igeldoko Kooperatibak eta ordutik ona zer balorazio egiten duten jakiteko asmoz, Kooperatibako juntako kideen iritzia jaso nahi izan du Orri Informatiboak. Orain arteko ibilbidearen balorazio oso positiboa dela azaldu dute, zentzu guztietan gainera: «Ez da salmentetan soilik, baizik eta bertan erostea, gerturaztea, biltzea... IKO, dendaz aparte, gune bat, bilgune bat, herriko txoko berri bat bihurtu da».

Jendearen erosketa ohiturei buruz galdetuta, denetariko ohiturak daudela azpimarratu dute: «Badaude eta ugari, egunero bertara gerturatzen direnak, astean 3-4 aldiz gerturatzen direnak, pasaeran geratzen direnak, mendi buelta edo bizikletan pasatzean, hamaiketako, deskantsu, geldu leku eta erosketa txiki bat egiteko pasatzen direnak, kuriositatez sartzen direnak, oportetean inguruan dabilzanak eta bertako produktuak erosteko geratzen direnak... Guzti horiek erosketaren bat egiten dute».

«Egunero eta uneoro sartzen da norbait ilusioz beterik»

Harrotasunezko proiektua bihurtzen ari dela diote, alde batetik herritarrontzat duen onuragatik, baina bestetik bertatik igarotzen den edonorentzat duen funtzio emankorragatik ere: «Egunero eta uneoro sartzen da norbait atetik ilusioz beterik, lehenengo aldiz, zorionduz eta leku berezi eta autentiko baten dagoenaren sentsazioa bizitzen ari dela azaleratuz. Eta hori harro egoteko nahiko arrazoia bada».

Proiektua herrian eta herritik kanpo zabaltzeko ere, lan handia egin dute. Bazkideen artean eta



Denetariko erosketa ohiturak biltzen dira IKOn.

herrian ahoz aho egin den lanaz aparte, komunikabideekin lan bikaina egin baitute: «Prentsa kudeaketan arrakasta izan genuen eta inguruko medio ia guztietan azaltzea lortu genuen, bai idatzian, bai irrastian eta baita elkarrizketetan ere. Hori hiritar indibidualak ahoz aho egiten duten "propagandarekin" elkartuz, gure proiektua lau haizetara zabaltzea lortu dugu».

Dendaren irekierarekin batera, kooperatibako juntakideei eta lan taldeetako kideei lana ez zaie falta izan: «Denboraldi honetan barne lan handia egiten ari gara guztia bideratzeko eta uneoro pasatzen diren errokeni aurre egiteko. Bizi dugun koronabirusaren egoera dela eta, horretara ere moldatu behar izan dugu eta aurrean jartzen zaizkigun erroka edo oztopoak gainditzen saiatzen ari gara».

Produktu eta eskaintza berri gehiago

Produktuei begira ere, barne lanketa asko egiten ari direla adierazi dute eta hurrengo hilabeteetan zehar produktu eta eskaintza berri gehiago

jartzeko aukera izango dutela. Horien artean honako hauek azpimarratu dituzte: «Egunkari zerbitzua dugu (eskaera bitartez), garaiko barazkien erosketa (enbotatzeko tomatea adibidez abuztuan), iradokizunak jasotzeko kutxa ere jarri dugu, Euskaraldian izena emateko lekua gara, sare sozialak aktibatu ditugu, garbiketa produktuak granelan erosteko aukera izango da, deskontuak aplikatzen hasi gara eta pixkanaka ekintza puntualekin batera gehiago sustatuko dira, bazkide berri izateko eskaerak jasotzen ari gara, inizatiba berriak ere aztertu eta lantzen ari gara...».

Eskerrak denei

Eskerrak emateko ere aprobetxatu nahi izan dute tarte hau: «Eskerrak eman nahi dizkiegu bazkide guztiei eta bertan erosten duten guztiei beraien konfidantza, kolaborazio, laguntza, partaidetza, pazientzia, aportazioak eta den denagatik. Proiektua guztiona da eta denon artean harrotasunez gidatzeko motorra martxan dago!».

Bizitza bat salbatzea, denon esku

Uztailaz geroztik, desfibriladore bat dago Igeldoko plazan. Eskola Zaharreko arkupetan dago, denon eskura (GPS bidezkoa da). Edonork erabiltzeko modukoa da, aparatuak berak ematen ditu azalpenak eta horiei jarraitu besterik ez dago.

Dena dela, halako egoeratan nola jokatu hobeto azal-

tzeko, ikastaro bat eskaini zuten Udaleko osasun teknikariek Igeldon, eta argi utzi zuten mezu bat: «Bizitza bat salbatzea denon esku dago. Hori barneratu behar dugu denok eta aktibo izan behar dugu horrelako egoeren aurrean. Ez da sanitariooi dagokigun gauza bat bakarrik».



Uztailean eskaini zuten osasun teknikariek ikastaroa eta 12 herritarrek hartu zuten parte.

NOLA JOKATU BIHOTZ GELDITZE BATEN AURREAN:

1. ERANTZUTEN AL DU?

Astindu biktima sorbaldeetatik eta galdetu ozen: "Ondo al zaude?"

2. NORMAL ARNASTEN AL DU?

Erantzuten ez badu, jarri buruz gora, eta ireki arnasbideak, kopeta-kokotseko maniobra eginda (burua atzera, ahoa ireki eta belarria gerturatu, gure aurpegia bere gorputzari begira), arnasa normal hartzen duen ikusteko.

3. BI AUKERA:

BAI: Jarri bere gorputza albo batera, arnasbideak zabalik egon daitezten, eta deitu 112ra.

EZ: Deitu 112ra eta hasi berehala konpresio torazikoak egiten. Indarrez, 5-6 cm jaitsi behar da. 100-120 konpresio minutuko. "Altza Pelipe" abestia jarraitu edo "Macarena". Jarraitu bihotz masajearekin desfibriladorea iritsi bitartean. Ahal dela bi lagun artean txandak egin. Ez da beharrezkoa ahoz ahoko aireztapena.

4. DESFIBRILADOREA LORTU, ESKATU

Desfibriladorea (DEA) iristean, piztu, jarri elektrodoak eta egin kasu aparatuaren jarraibideei. Jarraitu anbulantzia iritsi bitarte.

Bizitza bat salbatzea zure esku egon daiteke

► Detektatu egoera



► Deitu 112ra



► Eman bihotz masaje bat



► Lokalizatu desfibriladore bat toki publikoren batean



► Itxaron anbulantzia etorri arte

